

Deskripzioa

Iñaki Zubizarreta

Aiurri, Zenbaki berezia 1, 1997: 24-26.

Iñaki Zubizarreta Caracasko Euskal Etxeko presidentea izana da, Martinek kargu bera bete ondoren. Zubizarreta Areatzan, Bizkaian, jaioa da, eta, Martin bezalaxe, gerra garaian hara eta hona ibili ondoren, askatasuna Venezuelen topatu zuena. Zubizarreta artean mutil koxkorra zela iritsi zen mundu berrira, eta familiak bultzatuta erabaki zuen, orain urte gutxi, Euskal Herrira itzultzea. Dena den, amerikanotzat du bere burua. Kontinente hartan du bihotza, eta hango hizkera goxoan mintzatu zaigu, askatasun bila, Venezuelara joandako belaunaldiari buruz. "Venezuelari asko zor diogu, ez zaio egin duena behar adina aitortu", dio.

"Venezuela izugarri esker onekoa izan zen; eta hori ez dugu aitortzen jakin izan. Euskaldunak atzerrira bidali beharra sortu zenean, Venezuela izan zen euskaldunak modurik eskuzabalenean jaso zituen Amerikako herrialdea.

Hara iritsi ginen familiek pentsatzen genuen Venezuelen egingo zuten egonaldia motza izango zela, gutxi barru itzuliko ginela Euskal Herrira. Nik deitzen diet la generación del dedo índice pequeño; izan ere, behatzarekin mahaiaren gainean joaz, esaten zuten "hurrengo urtean". Eta hala, urte bat eta beste bat eta beste bat... txikitu egin zitzaizen behatza. Arrazoi horrexegatik hain zuzen ere, errefuxiatu kolonia hura ez zen herrialde hartan kulturalki behar bezala integratu. Ez ziren venezuelatarrak sentitzen; egonaldia behin-behinekoa zen. Venezuelara joan ginenon arazoa itzultzea zen; adinak ez zuen inporta. Eta hainbeste irauin genuen itzuli gabe, bada askorentzat zaila dela hau etxetzat hartzea.

Esan liteke gu ghetto batean bizi ginela ia. Lana komunitatetik kanpora izaten genuen, bai, baina gainontzeko bizitza guztia Caracasco Euskal Etxean egiten genuen. Hura zen gure Euskal Herri txikia, gure ghettoa: hara joaten ginen larunbat gauetan dibertitzera, han jokatzeko genuen pelotan, han genuen lagun kuadrila, andregaietan han hasten ginen... Gurasoak saiatzen ziren euren seme-alabak Euskal Etxera joan zitezen, euskaldunak euskaldunarekin ezkondu behar baitzuen. Zozketa hartan Anamari suertatu zitzaion Martin Ugalderei.

Guztira, hiru Euskal Etxe izan dira Caracasen. Lehenengoa, Cipreses eta Velazquez arteko izkinean zegoen. Garai hartan, Caracasen, kale izkina guztiek zuten izen bat, eta Cipreses eta Velazquez arteko horretantxe sortu zen lehen Euskal Etxea.

Hain zuzen ere, Pello Ugalde, Martinen aita, Euskal Etxearen pareko pentsio batetan bizi zen Venezuelara joan berritan. Haroztegia Euskal Etxearen ondoan zuen. Ni, berriz, Cipreses kalean bizi nintzen. Gure mundu txiki hartan, beraz, guztiak bizi ginen elkarrekin. Gogoan dut Pello oso gizon dibertigarria zela. Askotan egoten ginen elkarrekin, Joseba semearekin tratu handia izan bainuen Errusiatik Venezuelara iritsi

zenean lanean hasten lagundu nionez geroztik. Futbolearen ere elkarrekin jokatzeko genuen Joseba eta biok, eta baita Martinek ere. Deportivo vasco izena zuen gure taldeak.

Martinek, bestela, ofizioa zein zuen ez dakit, baina afizioa beti izan zuen idaztea, idatzi eta idatzi aritzea. Garai hartan zaila zen mutil gazte bati ezer argitaratu diezaioten. Baina apurka-apurka sona handia lortu zuen. Kazetaritza sariak lortu zituen, liburuak argitaratu zizkioten... Euzko Gaztediko kide eta presidente izan zen. Alderdirako ere lan asko egiten zuen: idatzi, erbesteko Jaurlaritzarekin harreman instituzionalak bideratu... Euskal Etxeko presidente ere izan zen garai batean.

Euskal Etxeko presidentearen lana zein zen? asko zegoen egiteko. Lehenik eta behin hura guztia antolatu. Euskaldunen zentru soziala zen hura, eta han zuten ordezkariak komunitateko alderdi politiko, erakunde eta talde guztiek. Euzko Jaurlaritzarako dirulaguntzak jasotzen ziren, agintariei ongietorriak egin...; horrezaz gainera, festa ugari prestatzen ziren. Euskal Herrian oraindik batere ez zenean ikastola bat antolatzeko ausardia izan genuen, umeei euskaraz ikas zezaten. Hiru aldizkari argitaratzen genituen.

Hura guztia administratzea lan handia zen. Gauzak egiteko izpiritu handia zegoen, eta Martinek, bazuen izpiritu hura".